



**Arartekoaren 2011ko azaroaren 2ko ebazpena. Horren bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio kaltetutako jabeen erkidegoari hornikuntza saretik giltza nagusi edo erregistrokorainoko hartunea aldatzeko egindako gastuak ordain diezazkion.**

### Aurrekariak

1. (...) kaleko jabeen erkidegoak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan. Izan ere, ez zeuden ados Getxoko Udalaren jarduketarekin, udalak aipatu erkidegoa hornitzen duen ur hartunearen titulartasuna ezartzeko erabilitako irizpideei dagokienez.

2008ko abenduaren 10ean erkidegoak idazki bat aurkeztu zuen matxurari eta, instalazioa herri-bidean egon arren, elementu pribatutzat jotzeagatik, erkidegoak hura konpontzeko zuen betebeharrari buruzko argibideak eskatzeko. Interesdunek 2009ko otsailaren 9an jaso zuten lehen komunikazioa. Haren bidez, adierazi zitzairen erkidegoaren hartune partikularrean ur edangarri ihes bati antzeman zitzaiola, eta jakinarazi zitzairen konpondu behar zela, etxebizitza 1975 baino lehenago eraiki zenez gero, hartune osoa, udal saretik etxebizitzaraino (eraikina), jabetza partikularrekoa delako.

Ez ziren ados egon irizpide horrekin, uste baitzuten legezko arauketaren aurkakoa zela eta, beraz, 2009ko apirilaren 30ean alegazio idazki bat aurkeztu zuten. Bertan adierazi zuten, 1969an, udalak hodi nagusi zaharra kendu eta berri bat jarri zuela, eta instalazio partikularra handik aurrera hasten dela. Irizpide berriaren arabera, ordea, instalazio partikularra galtzadaren erdian hasten da, eraikinetik 6 metrora. Balbulari lotzeko hodi hori, ordea, udalarena izan da beti eta gastu guztiak udalaren kontura izan ziren. Era berean, balbularainoko instalazio publiko horren mantenua 40 urtez egin da.

Udalak alegazioei erantzun zien, erkidegoak zenbait idazkitan eskatu ondoren, eta azpiegitura eta zerbitzuen arduradunak 2010eko irailaren 20an egindako txostena igorri zien. Txostenak honakoa zioen:

*“Con fecha 9 de diciembre de 1975 el Ministerio de Industria aprueba las Normas Básicas para las instalaciones interiores de suministro de agua con el fin de regularizar los materiales, dimensiones y disposiciones de las instalaciones interiores de suministro de agua.*

*Estas Normas son de obligado cumplimiento en instalaciones construidas a partir de su aprobación y regulan tanto los materiales y el modo de ejecución de las instalaciones como a quien corresponde su ejecución y posterior mantenimiento. El Servicio Municipal de Aguas las aplica en construcciones posteriores a esta fecha de aprobación. En instalaciones construidas anteriormente a la aprobación de las citadas Normas el criterio que sigue el Servicio de Aguas es el de continuar con el que se aplicaba hasta ese momento, que era que la acometida completa era propiedad y, por lo tanto,*





*responsabilidad de los particulares. Este criterio se sustenta en que dichas instalaciones no se han construido con los criterios de calidad demandados por las Normas ni bajo la supervisión del Servicio Municipal de Aguas y que además en las citadas Normas no se ordena su aplicación con efectos retroactivos.*

*Por todo lo anterior expuesto, y dado que la vivienda de (...) es anterior al año 1975, es por lo que la totalidad de la acometida es de propiedad y competencia particular.*

*Se desconoce por qué en su día el Ayuntamiento realizó la reparación que se indica en el escrito de reclamación.”*

2011ko azaroaren 11n erkidegoak idatziz erantzun zion txosten horri, aipatu hodiaren udal jabetzari buruz, eta udalak arestian aipatu txosten tekniko bera igorritz erantzun zuen. Erreklamazioegileek, otsailaren 10ean, beste idazki bat aurkeztu zuten. Bertan, 1975 baino lehen indarrean zegoen araudia eta egun indarrean dagoena aztertu zituzten, eta ukatu egin zuten udal irizpide edo arauaren arabera hartune osoa jabetza partikularrekoa zenik. Azaldu argudioak ikusita, eskatu zuten argi geratu behar zela ur instalakuntza partikularra espaloian dagoen erregistro giltzatik aurrera hasten dela eta hartune osoa, erregistro giltza barne, sare nagusiraino udal titulartasunekoa dela.

Getxoko Udalak, hirugarrenez, 2010eko irailaren 20ko txosten teknikoak igorri zien, kaltetutako erkidegoak azaldutako argudioak baloratu barik.

Kexa izapidetzea onartuta, Arartekoak gaiari buruzko argibideak eskatu zizkion Getxoko Udalari, zehazki, honako alderdiei buruz:

- Getxo udalerrian hartuneen araubidea Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoaren Erabilzaileentzako Ur Horniketa eta Saneamendu Zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren eta, zehazki, 27.1 artikulua den.
- Besteren bat balitz, 2008an hartuneei buruz indarrean zegoen udal arauketa, dagokion ordenantzarekin batera.
- Beste araubide bat aplikatzen badute, agertutako kasuari aplikatu behar zaiola uste izateko argudio juridikoak.
- Kexaren edukia eta erkidegoak izapidetutako alegazio idazkietan Getxoko Udalari aurkeztutako alegazioak baloratzeko egoki deritzoten beste edozein argibide.

2. Getxoko Udalak gure argibide eskaerari erantzun zion eta adierazi zuen erkidegoari igorritako txosten guztien kopia (arestian aipatu 2010eko irailaren 20ko txostena eta ondorengoak, testu berberarekin, igorritako lehenengoa errepikatuz) igortzen zizkigula. Haietan zehazten da, udal ordenantzarik ezean, Ur eta Saneamendu Zerbitzuak indarrean dauden eta onartu zirenetik nazio lurralde osoan derrigorrez betetzeko diren arau tekniko horiek darabiltzala.





1975eko abenduaren 9ko aginduak onartutako Oinarrizko Arauen kopia ere igorri ziguten.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak ikusita, egokia deritzogu honako oharbideak igortzeari:

### Oharbideak

1.- Kexaren gai zehatzak udal irizpidearekin ados ez egoteari heltzen dio. Irizpide horren arabera, hornikuntza saretik hartune osoa jabetza partikularrekoa da, 1975 aurreko eraikina izateagatik eta, ondorioz, haren mantenua jabeen erkidegoaren kargura egin behar da. Jabeen erkidegoak, aldiz, uste du ur instalakuntza partikularra espaloian dagoen erregistro giltzati aurrera hasten dela eta hartune osoa, erregistro giltza barne, sare nagusiraino udal titulartasunekoa dela.

Halaber, jabeen erkidegoak adierazi du ez dagoela ados udalaren aurrean aurkeztutako alegazio eta argudioei erantzun arrazoiturik ez ematearekin; izan ere, hiru aldiz jaso dute txosten tekniko berbera erantzun.

Kexaren planteamenduaren muina aztertu aurretik, udal izapidetzean ikusitako forma kontuei buruz hitz egin behar genuke. Erkidego interesdunak gaiari buruz jasotako komunikazioek ez dute ebazpen formarik izan, haietan guztietan azpiegitura eta zerbitzuen arduradunaren txostena helarazi baitzaie, eta, beraz, ez dute bete ebazpen orok izan beharreko edukia, 30/1992 Legeko 89. artikularen arabera (AJAPEL)<sup>1</sup>.

Aipamen berezia egin behar dugu ebazpenen edukiari eta esan derrigorrezkoa dela hartzen den erabakia arrazoitzea eta interesdunek egindako eskaerekin bat etortzea. Txostenak edo irizpenak ebazpenaren arrazoiketa izan daitezke haren testuari erantsita daudenean, baina egindako txostenak ezin du erakunde eskudunaren erabakia ordeztu.

Azken batean, kasu honetan ez dago erakunde eskudunak egindako eskaerari buruz emandako erabakirik, ez dira adierazi ebazpen horren aurka erabil daitezkeen errekurtsioak ezta zer erakunderen aurrean aurkeztu behar liratekeen, ezta jartzeko epea ere, eta ez dago arrazoiketa nahikorik kaltetutako jabeen erkidegoak agertutako kontuei buruz.

2.- Sakoneko kontuari dagokionez, erabiltzaileentzako ur hornikuntza zerbitzua arautzen duen araudia aztertu behar da, ur instalakuntzen ezaugarriak bereziki aipatuz, baita haren mantenu eta zaintzari buruzko eskubideak eta betebeharrak ere.

---

<sup>1</sup> 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena.



Getxoko Udala Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoaren baitan dago. Udalaz gaindiko erakunde honek *“Partzuergoratutako udalerrietako eremuan ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak ematea du helburu nagusi. Bere izaerak honako abiaburu hauek ditu oinarri: hiriko ur-zikloaren kudeaketaren integrazioa, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasuna eta lurralde eremu horretako tarifen berdintasuna.”*<sup>2</sup>

Halaber, Partzuergoak *“honako eskumen hauek ere baditu, besteak beste: bere lurralde eremuko ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak araupetzea, zerbitzugintza hori bere gain hartzen duen neurrian; eta “Bezeroen Kudeaketa” zerbitzua arauen bidez antolatzea, partzuergoratutako udalerrietako lurralde eremuan berdina izan dadin”.*

Zerbitzuaren Ordenantzaren aplikazio esparruari eta helburuari dagokienez (3 eta 4. artikulua), ur hornikuntza zerbitzuak honakoak biltzen ditu:

- Lehen mailako sareko zerbitzua; Partzuergoak ematen die partzuergoko udal guztiei. Bertan Ordenantzak aplikazio bateratua dauka.
- Bigarren mailako sareko zerbitzua edo banaketa zerbitzua. Ordenantza aplikatu behar da Partzuergoak zerbitzua ematea eraginkortasunez bere egin duenean. Bestela, udala bere udal ordenantzen bidez arautuko da.
- Abonatuen kudeaketa, bai lehen mailako bai bigarren mailako sarean.

Hemen aztertutakoari begira, bigarren mailako sareko zerbitzuaren baitan lehen mailako sarean emandako ura biltegietan biltzea eta instalakuntza pribatuei lotzeko hartuneetarainoko banaketa sartzen dira.

Azkenik, hartuneen mantenu eta zaintzari dagokionez, Zerbitzuaren Ordenantzako 27. artikulua honakoa xedatzen du:

*“1.-PARTZUERGOAK derrigorrean mantendu eta artatu beharko du erregistrogiltzarainoko hartunea –azken hori ere barne hartuta–, eta bere kontura, gainera. Matxura eragindakoa izango balitz, kalte eragilearen konturakoa izango litzateke konponketa.*

*2.-Erregistro-giltzatik aurrera, artapena, mantenimendua eta konponketa jabetzaren beraren konturakoak izango dira derrigorrean.”*

Arau esparrua osatzeko, Partzuergoak zerga ordenantza bat dauka. Hark arautzen ditu erabiltzaileei ur hornikuntza zerbitzua emateagatiko tasak. Horrela, 2. artikulua xedatzen duenez, zerga ordenantza horrek arautzen dituen tasen eraketaren oinarria partzuergoko udalen lurralde eremuan tarifa bateratuko printzipioa da, hornikuntza eta saneamendu zerbitzuetarako; bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzurako izan ezik.

<sup>2</sup> Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoaren Erabiltzaileentzako Ur Hornikuntza eta Saneamendu Zerbitzua arautzeko Ordenantzako 1. artikulua (Zerbitzuaren Ordenantza).



Zentzu horretan, zerga ordenantzako 3.2 artikulua xedatzen duenez, bere sorkuntzako arauaren arabera, Partzuergoari dagokiola hornikuntza eta saneamendu tarifen zenbatekoa ezarri eta finkatzeko eskumena, udalek zerbitzu horien zatiren bat eman zein ez –bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzua alde batera utzita- eta kudeaketa zuzena zein zeharkakoa egin.

Bestalde, tarifen egitura arautzerakoan (5. artikulua), zerga ordenantzak honakoa xedatzen du:

*“1.- Ordenantza Fiskal honen helburu diren tasen tarifa-egiturak lurraldeberdintasun, orobatasun, egokitasun eta nahikotasun abiaburuak ditu oinarri.*

*2.- Erabiltzaileei bigarren mailako sareko Ur Hornikuntza eta Saneamenduagatik ezarritako Tasen tarifek zerbitzuaren kostu guztiak barne hartzen dituzte, hau da, bigarren mailako sareko kostu bereziak eransten dizkiete lehen mailako sareko zerbitzuaren tarifei. ...”*

Atal honetan adierazitakoa laburbiltzeko, esan behar dugu partzuergoko udalek bigarren mailako sareko ur hornikuntza zerbitzuaren mantenua egin dezaketela eta zerbitzua bere udal ordenantzen bidez arautuko dela, baina arauketa horrek hiriko ur zikloaren kudeaketa bateratuko eta zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasuneko printzipioak bete behar dituela. Zentzu horretan, uste dugu udal arauketak ezin duela jaso adierazitako printzipioekin talka egin lezaketen betebeharririk, ezta Partzuergoaren erabiltzaile guztiei kontzeptu guztiengatik aplikatu behar zaien tarifa egiturari gainjartzen zaion erabiltzailearentzako betebeharririk ere, jokabide hori Zerbitzuaren Ordenantzaren eta zerga ordenantzaren aurkakoa bailitzateke. Bestela esanda, adierazitako ondoreetarako, abonatuak erabiltzaileentzat berdina da bigarren mailako sareko ur hornikuntza zerbitzuaren kudeaketa Partzuergoak edo udalek egitea, ondore horietarako haien eskubide eta betebeharren edukiak berdina eta bateratua izan behar duelako.

3. Getxoko Udalak ez dauka bigarren mailako sareko ur hornikuntza zerbitzua arautzeko ordenantzarik. Hala ondorioztatzen da, erakunde honek galdetutako kontu horri berriazko erantzunik eman ez baitzaio eta haren web orrian ez baitago zerbitzua arautzeko ordenantzarik.

Toki erakundeek arautzeko duten ahalmenaren arabera, ordenantzak eta arautegian onar ditzakete, eta halakoak derrigorrez bete beharreko arau juridikoak dira haien hartzaileentzat, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren esparruan. Emandako zerbitzua arautzen duen berriazko arau juridikorik ezean, udalak indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aplikazioa edo oinarria duten egintza administratiboak eman ditzakete. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, zehapen araubidea, etab. arautzen dituen zerbitzuaren ordenantza edo arautegirik gabe udalak ur hornikuntza zerbitzua





moztea bezalako neurriak aplikatu ahal izatea oso zalantzarria bada ere<sup>3</sup>, agertutako kasuan aipatutako arau esparrua aztertuko dugu.

Getxoko Udalak adierazi du ur hornikuntzako barneko instalakuntzetarako oinarritzko arauak onartzen dituen Industria Ministerioaren 1975eko abenduaren 9ko Agindua aplikatu behar dela. Arau horien helburua barneko instalakuntzei funtzionamendu zuzena lortzeko eskatu beharreko gutxieneko baldintzak ezartzea zen, erabilera baldintza arruntetarako hornikuntza nahikoa eta erregularra izateari dagokionez (1. araua).

Aipatu agindua indargabetuta dago. Dena dela, gure iritziz, arau horrek ere ez zuen ahalmenik ematen indarrean sartu aurreko eta ondorengo eraikuntzentzat eskubide eta betebeharrak desberdinak ezartzeko, Uren Udal Zerbitzuak darabilen "irizpidearen" arabera. Eraikitze Kode Teknikoa (EKT) onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak, urtebetez xedatutako araubide iragankorra kaltetu barik, berriaz indargabetu zuen Industria Ministerioaren 1975eko abenduaren 9ko Agindua, EKTko II zatiko HS 4 sailak ur hornikuntza arautzen du, eta ez dauka pareko araurik hartune osoa eraikitzea eta ondoren mantentzea noren eskumena diren arautzeko.

Edonola ere, gizakien kontsumorako uraren kalitatearen osasun irizpideak xedatzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuak xedatzen duenez, udalak dute ardura edozein banaketa sareren bidez hornitutako ura kontsumitzaileari emateko puntuan kontsumorako egokia izateko; halaber, xedatzen duenez, kudeatzaileen erantzukizuna kontsumitzaileen hartunearen giltza nagusian<sup>4</sup> amaitzen da (4. artikulua). Zentzu horretan, zaila da ondorioztatzea, uren kalitatea kontsumitzaileen hartunearen giltza nagusiraino mantentzearen erantzukizuna udalarena edo zerbitzuaren kudeatzailearena bada, erabiltzaileek euren kargura mantendu behar dituztenik instalakuntzak.

Udalaren irizpidea indargabetutako agindu batean oinarrituz aplikatu dela adierazi badugu ere, aipatu behar dugu 1969an hodi nagusi zaharra aldatu eta diametro handiagoko burdinazko hodi bat jarri zela, dagokion balbularekin, eta gastu guztiak udalaren kargura izan zirela. Udalaren 2008ko urriaren 14ko irizpide berria arte, erkidegoa ez zein sekula arduratu aipatu hartunea konpontzeaz. Horrela, erkidegoari aldatzeko eskatu zaion hodia udalarena berarena zen, eta puntu hori ere kontra egiten dio udalaren arazoiketari.

Udalaren irizpidearen alde indarrean dagoen legerik eta udalaren beraren arauketarik ez dagoenez, arazoizkoa da proposatzea Getxoko Udalak bere egin behar lukeela Zerbitzuaren Ordenantzan Partzuergoak bigarren mailako sarean ur hornikuntza zerbitzua ematen dien erabiltzaileentzat xedatutako "irizpidea". Arauketa hori udalaren irizpide erabiltzea bikain egokituko litzateke, partzuergoko udala izanda bere egiten dituen homogeneousotasun eta bateratasun

<sup>3</sup>Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 34 artikulua: "Dagokion toki-ordenantzan egongo da arauturik urhorniketarako zerbitzuaren araubide juridikoa".

<sup>4</sup> Zerbitzuaren Ordenantzak erregistro giltza deritzo.



printzipioak ikusita eta, arestian argudiatu dugunez, zerga ordenantzan xedatutako tarifa egitura kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Getxoko Udalak ez duela zuzenbidearen arabera jokatu kasu honetan eta, ondorioz, ofizioz berrikusi behar lukeela kexa honetan burututako jarduketa, erkidego interesdunari udalaren hodia aldatzeko sortutako gastuak ordainduz.

4. Arestiko oharbideen harira, uste dugu udalak, udal ordenantza baten bitartez edo Partzuergoaren Zerbitzuaren Ordenantzako xedapenak bere eginez, bere lurralde esparrurako bigarren mailako sareko ur hornikuntza zerbitzua arautu behar duela, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, prozeduraren bermeak, arau-hauste eta zigorren araubidea eta, orokorrean, arestian aipatu Uren Legeko 34. artikulua jasotako kontuak behar bezala ezarriz.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:

#### **44/2011 GOMENDIOA, azaroren 2koa, Getxoko Udalari egina**

1. Azaldutako oharbideen arabera eta dagokion izapideak eginda, kaltetutako jabeen erkidegoari, udalaren Uren Zerbitzuak aginduta, banaketa saretik giltza nagusi edo erregistrokorainoko hartunea aldatzeagatik sortutako gastuak ordain diezazkiola.
2. Bere lurralde esparrurako bigarren mailako sareko ur hornikuntza zerbitzua arautu dezala, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, prozeduraren bermeak, arau-hauste eta zigorren araubidea, etab. behar bezala ezarriz.

